



Ayuntamiento  
de Vitoria-Gasteiz  
Vitoria-Gasteizko  
Udala

[www.vitoria-gasteiz.org](http://www.vitoria-gasteiz.org)



Vitoria-Gasteiz  
Hiri Hezitzailea  
Ciudad Educadora  
HHESen Hiri Koordinatzailea  
Ciudad Coordinadora de la RECE

**2020ko ADIERAZPEN INSTITUZIONALA  
AZAROAREN 30a / HIRI HEZITZAILAREN  
NAZIOARTEKO EGUNA**

**“30 urte pertsonak eta hiriak eraldatzen  
mundu hobeko baten alde”**

Egun inork ez du zalantzan jartzen hiriak, handi zein txiki, funtsezko agertokiak direla gizateriari bere konplexutasun osoan eragiten dioten errokeni aurre egiterakoan. Hirietan adierazten dira espezie gisa gure biziraupenari desafio egiten dioten arazoetako asko, esaterako klima aldaketan eragiten duen kutsadura edo pertsonen garapen potentzialari eragiten dieten desberdintasun sozialak. Horiek guztiek murriztu egiten dizkigute bizitzeko ditugun aukerak eta, beraz, zaurgarriago egiten gaitu kolektibo modura.

Erronka horiei erantzuna emateko apustua da Hiri Hezitzaileak egitasmoa, heziketa hartuta aldaketarako nahitaezko tresnatzat hirietan testuinguru jasangarriagoak, inklusiboagoak, kohesionatuagoak eta engaiatuagoak sortzeko. Engaiatuta gaude bizitza osoko hezkuntzaren ikuspegi zabal batekin, ikasgela barruan zein ikasgelatik kanpo, eta gure udaletik bultzatzen ditugun politikek hezkuntzan duten inpaktua areagotzearekin; hiria birpentsatuz heziketa-ekosistema inklusibo eta dinamikoa izateko, bertan bizi diren pertsonekin elkarriketa etengabea dena.

Hiri Hezitzaileak osatzen dugunok jakitun gara aurre egin beharrean garen errokeni ezin diegula heldu aldekarreko konponbide soil batzuek; aitzitik, kontraesanentzat lekua izango den espazioak sortzea eskatzen du, eta bizi dugun ziurtasunik gabeko garai honetan elkarrekin bizitzeko erarik behinentzat ezagutza, elkarriketa eta parte-hartze prozesuak proposatzen dituztenentzat ere egon behar du.

**DECLARACIÓN INSTITUCIONAL de 2020  
30 NOVIEMBRE / DÍA INTERNACIONAL  
DE LA CIUDAD EDUCADORA**

**“30 años transformando personas y  
ciudades para un mundo mejor”**

Hoy ya nadie cuestiona que las ciudades, grandes y pequeñas, son escenarios clave en los que los retos que debe afrontar la humanidad impactan con toda su complejidad. En las ciudades se manifiestan muchos de los problemas que desafían nuestra supervivencia como especie, como la contaminación que incide en el cambio climático o las desigualdades sociales que afectan al desarrollo del potencial de las personas, mermando nuestras opciones vitales y haciéndonos, en consecuencia, colectivamente más vulnerables.

Las Ciudades Educadoras apostamos por dar respuesta a estos desafíos situando la educación como palanca del cambio imprescindible para crear contextos urbanos más sostenibles, inclusivos, cohesionados y comprometidos. Nuestra implicación es potenciar una visión amplia de la educación a lo largo de la vida, tanto dentro como fuera de las aulas, y maximizar el impacto educativo de nuestras políticas municipales, repensando la ciudad como un ecosistema educativo inclusivo, dinámico y en diálogo permanente con las personas que la habitan.

Las Ciudades Educadoras somos conscientes de que los desafíos a los que nos enfrentamos no pueden abordarse mediante soluciones unilaterales y simples, sino que requieren la articulación de espacios que acepten la contradicción y que propongan procesos de conocimiento, diálogo y participación como la mejor forma para convivir en y con la incertidumbre propia de nuestra época.



Ayuntamiento  
de Vitoria-Gasteiz  
Vitoria-Gasteizko  
Udala

[www.vitoria-gasteiz.org](http://www.vitoria-gasteiz.org)



Norabide bikoitzeko bide bat da, tokiko gobernuek eta tokiko gizarte-eragile guztiek (antolatutako gizarte zibila, sektore pribatua, herritarrak, etab.) zeharkatu behar dutena joan-etorri iraunkor, parte-hartzaile eta inklusiboan.

SARS-CoV-2k sortutako krisi soziosanitarioaren ondorioz, hezkuntza-eremuan nabarmenago antzeman daitekeen errealitateetako bat, arrakala, digitala deritzona da. Gertakari horrek eragina du bai ikasleengan baita familiengan ere.

Arrakala digital hori informazioaren eta komunikazioaren teknologia berrien eskuragarritasunean, erabileran eta erabilera-kalitatean zehaztu daiteke. Alderdi horiei guztiei gizarte gisa eta hiri hezitzaile gisa heldu behar zaie, hezkuntzaren garapenean, eskola-arrakastan eta ikasle guztien aukeretan sortzen dituen desberdintasunak arintzeko, ahaztu gabe haurren seguntasunarekin lotutako gai guztiak.

**Hiri Hezitzaileen Nazioarte Egunaren** bosgarren edizioak **“30 urte pertsonak eta hiriak eraldatzen mundu hobeto baten alde”** du lema, 1990ean Bartzelonan burutu zen I. Hiri Hezitzaileen Nazioarteko Biltzarrean onartutako Hiri Hezitzaileen Gutunaren 30. urteurrenari keinu eginez. Tokiko gobernuek Hiri Hezitzailea eraikitzeke duten geroz konpromiso handiagoa da 30 urteotako lanaren eta hobekuntzaren isla. Konpromiso hori berri eta eguneratu egingo da aurten, Hiri Hezitzaileen Gutun berriarekin.

Vitoria-Gasteizko Udalak bere egin zuen Gutun hori hasieratik bertatik, 1990ean. HHNE Hiri Hezitzaileen Nazioarteko Erakundearen kide da hasiera-hasieratik, eta Hiri Hezitzaileen Estatuko Sarearen (HHES) 8 hiri sortzaileetako bat da. Lan horri eskainitako ibilbideak erronka berri bat

Se trata de un camino de doble sentido que debe ser transitado tanto por los gobiernos locales como por todos los agentes sociales (sociedad civil organizada, sector privado, ciudadanía, etc.) en un ir y venir constante, participativo e inclusivo.

A raíz de la crisis socio-sanitaria generada por el SARS-CoV-2, una de las realidades que se ha hecho más patente, si cabe, es el efecto de la denominada brecha digital en el ámbito educativo, tanto en lo que respecta al alumnado como a sus familias.

Una brecha digital que puede concretarse tanto en el acceso, como en el uso y en la calidad de uso de las nuevas tecnologías de la información y la comunicación. Aspectos todos ellos que requieren ser abordados como sociedad y como ciudad educadora, con objeto de paliar las desigualdades que la brecha digital genera en el desarrollo de la educación, en el éxito escolar y en las oportunidades del conjunto del alumnado, sin olvidarnos de todas aquellas cuestiones relacionadas con la seguridad de las niñas y niños en la educación digital.

El lema de la quinta edición del **Día Internacional de la Ciudad Educadora** es **“30 años transformando personas y ciudades para un mundo mejor”**, por alusión al 30 aniversario de la proclamación de la Carta de Ciudades Educadoras en el I Congreso Internacional de Ciudades Educadoras, celebrado en Barcelona en 1990. Estos 30 años de trabajo y mejora han ido generando un creciente compromiso para los gobiernos locales en la construcción de la Ciudad Educadora. Este compromiso se ve renovado este año, con la actualización y elaboración de una nueva Carta de Ciudades Educadoras.

Vitoria-Gasteiz proclamó la Carta desde su comienzo, en 1990; forma parte, también desde sus inicios, de la Asociación Internacional de Ciudades Educadora (AICE); y es una de las 8 ciudades fundadoras de la Red Estatal de Ciudades Educadoras (RECE). Esta trayectoria



Ayuntamiento  
de Vitoria-Gasteiz  
Vitoria-Gasteizko  
Udala

[www.vitoria-gasteiz.org](http://www.vitoria-gasteiz.org)



ekarri digu 2020-2022 aldirako, Vitoria-Gasteiz Hiri Hezitzaileen Estatuko Sareko Hiri Koordinatzaile izendatu dute eta (gaur egun, Espainiako Estatuko 221 hiri biltzen ditu). Gainera, aldi horretan garatzen diren gaikako 4 sareetako baten buru da: “Hiri inklusiboa, Hiri hezitzailea”.

Horregatik guztiagatik, herritarrengandik hurbilen den administrazioa garenez, konpromisoa hartzen dugu komunikaziorako eta parte hartzeko kanalak ezartzeko eta indartzeko, elkarren artean urratsak emateko Hiri Hezitzaileago bat lortze aldera, pertsonak ardatz izango dituen eta XXI. mendeko erronkei erantzun berritzaile eta eraginkorrak emango dizkiena.

Vitoria-Gasteizetik bat egiten dugu Hiri Hezitzaileen Nazioarteko Egunarekin, uste bat partekatuta: entzute aktiboaren alde eginez gero aukera dugula komunitate-loturak sendotzeko, pertenezia-sentimenduak indartzeko eta alde guztiak, nor bere erantzukizunen talaiatik, Hiri Hezitzailearen eraikuntzan era aktiboan parte hartzea ziurtatzeko.

Ordezkatzen dudan erakundetik eta bertako alkate gisa, konpromiso argi eta garbia hartzen dugu aurtengo edizioaren lema (“30 urte pertsonak eta hiriak eraldatzen mundu hobea baten alde”) sakonean den edukia berritzeko, eraikitze demokratiko eta parte-hartzailerako espazioak zabaltzeko helburuarekin, ahots guztiak bilduko dituztenak eta inor atzean utziko ez duen hiri sortzea ahalbidetuko digutenak.

Horrenbestez, bat egiten dugu mundu osoan ospatuko den **Hiri Hezitzaileen Nazioarteko Egunarekin**, sinetsirik beste hiri askorekin batera eskuz esku joanez urrats irmoak emateko eta horrelako hiriaren aldeko gure ahotsa entzuteko aukera eskaintzen zaigula.

de trabajo ha conllevado un nuevo reto para el periodo 2020-2022, dado que Vitoria-Gasteiz ha sido elegida Ciudad Coordinadora de la Red Estatal de Ciudades Educadoras que, en la actualidad, aglutina a 221 ciudades del Estado Español, además de liderar una de las 4 redes temáticas que se desarrollan en dicho periodo y que lleva por título: “Ciudad Inclusiva, Ciudad Educadora”.

Por todo ello, y en tanto que administración más cercana a la ciudadanía, nos comprometemos a establecer y a potenciar diferentes canales de comunicación y participación, con el objetivo de avanzar conjuntamente hacia la construcción de una Ciudad más Educadora centrada en las personas, que dé respuestas innovadoras y efectivas a los retos del siglo XXI.

Desde Vitoria-Gasteiz nos sumamos a la celebración del Día Internacional de la Ciudad Educadora y compartimos el convencimiento de que apostar por la escucha activa nos permite reforzar los vínculos comunitarios, fortalecer el sentimiento de pertenencia y asegurar que todas las partes, cada una desde nuestras respectivas responsabilidades, contribuimos activamente en la construcción de la Ciudad Educadora.

Desde la institución que represento y en mi cargo de Alcalde, nos comprometemos decididamente a renovar el compromiso del contenido que subyace bajo el lema de esta edición “30 años transformando personas y ciudades para un mundo mejor”, con el objetivo de abrir espacios de construcción democrática y participativa que incorporen a todas las voces y que nos permitan crear una ciudad que no deje a nadie atrás.

Nos sumamos, así, a la celebración mundial del **Día Internacional de la Ciudad Educadora**, con la certeza de que caminar junto a otras muchas ciudades nos permite avanzar con paso firme y hacer oír nuestra voz a favor de este modelo de ciudad.



Ayuntamiento  
de Vitoria-Gasteiz  
Vitoria-Gasteizko  
Udala

[www.vitoria-gasteiz.org](http://www.vitoria-gasteiz.org)



**Vitoria-Gasteiz**  
**Hiri Hezitzailea**  
**Ciudad Educadora**

HHESen Hiri Koordinatzailea  
Ciudad Coordinadora de la RECE

Adierazpen hau izan dadila Udalaren Osoko Bilkuraren konpromisoaren erakusle Vitoria-Gasteiz Hiri Hezitzaile bezala eraikitzeko eta gure hiri-egitasmoaren zeharkako ardatz izateko, hiriko bizitza osoan eta bertan bizigaren guztiongan eraginez, onerako eragin ere.

Sirva esta Declaración como muestra del compromiso del Ayuntamiento-Pleno en seguir avanzando en la construcción de Vitoria-Gasteiz como Ciudad Educadora y su consideración como uno de los ejes transversales de nuestro proyecto de ciudad, que impregnará al conjunto de la vida en la ciudad y a todas las personas que en ellas vivimos.